euskal herria ezkerretik

# AKORDIOA

## ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALERAKO EZKERREKO INDEPENDENTISTEN ETA SOBERANISTEN ARTEKO AKORDIOA

# ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALERAKO EZKERREKO INDEPENDENTISTEN ETA SOBERANISTEN ARTEKO AKORDIOA

Ezker indartsu batetik, eskubide pertsonal zein kolektibo guztiak eta berauen ariketa babestuko eta egikarituko dituen agenda politikoaren aldeko konpromisoa

EZKER ABERTZALEAK, EUSKO ALKARTASUNAK eta ALTERNATIBAK aurkezten dugun Akordioak, Euskal Herrian zabaltzen ari den fase politiko berriari modu baikorrean erantzun nahi dio. Eszenatoki politiko berriak, arduraz jokatzeko ariketa sakona egitea eskatzen die alde guztiei eta, horrexegatik, hain zuzen, Akordio hau izenpetzen dugun indar politikook gure herriaren eraikuntza nazionala eta eraldaketa soziala bultzatzeko geure ahaleginak biltzea erabaki dugu, eskuratu nahi dugun Euskal Herria subiranoa eta solidarioa erdiesteko bidean aurrera egiteko asmoz, beti ere, bide politikoak soilik erabiliz.

Gure ibilbide, agenda eta identitate ezberdinek ez dute ezinezko bihurtu partekatzen ditugun helburuak eskuratzeko asmoz indarrak biltzeko burutu dugun Akordioa, bai maila politikoan zein eredu ekonomiko, sozial eta kulturalean ere. Ezkerraren gero eta artikulatze maila indartsuagoaren alde egiten dugun apustu hau, are eta beharrezkoagoa da egun bizi dugun krisialdi sistemikoaren erdian. Honekin guztiarekin, Hego Euskal Herrian maila sozialean, politikoan eta baita instituzionalean ere eraginkorrak eta bideragarriak izango diren tresna berriak eskaini nahi dizkiogu euskal jendarteari.

Gauzak horrela, Akordio hau, herrien zein pertsona ororen eskubide guztien defentsa indartzeko konpromiso kolektibo eta borondateen bateratzea beharrezkoa dela, eta Euskal Herriak bizi duen abagune historiko honetan lehentasun politiko zein sozialei modu berean erantzun behar zaiela pentsatzen dugunon artean egin dugu.

## 1 ABAGUNEAREN TESTUINGURUA

Euskal Herrian indarrean dauden korronte politiko eta sozioekonomikoek zuzenean eragiten dute eskubide pertsonal zein kolektiboen bortxaketan. Egoera hau, osagarriak diren hiru oinarrik finkatzen dute: krisialdi sistemikoa eragin duten egitura eta politikak, Estatu espainol zein frantsesaren hutsune demokratikoak eta, egungo eredu juridikoen agortzea.

Herritarren gehiengoaren nahiarekin bat egiten ez duen eta, gainera, agortuta dauden egungo marko juridiko-politikoak gainditzeko borondate argia daukagu, zer esanik ez, egungo krisialdi ekonomikoak eta Euskal Herriaren eta euskal jendartearen eskubide pertsonal eta kolektiboak etengabe higatzen dituen argazki instituzional artifiziala ikusirik. Horrek guztiak, elkarlanean aritzeko konpromisora eraman gaitu.

Akordio hau izenpetzen dugun indarrok, bat egiten dugu Euskal Herriari dagokion subjektu politikoaren izaera eta bertako herritarrei beren etorkizun politikoa, soziala eta ekonomikoa libreki hautatzeko eskubidea ukatzen duten Estatu espainol zein frantsesaren estrategia antidemokratikoa salatzerakoan.

Euskal Herriari nazio gisa bere etorkizuna zehazteko dagokion eskubidearen ukazioari, sistemaren krisialdi sakona gehitu zaio orain. Egoera horretaz baliatu-

rik, bere garaian ezarri ziren Estatu Ongizatearen zutoin nagusiak suntsitzen ari dira, klase herritarren bizitza kalitateari modu kaltegarrian eragiten dieten neurri ekonomikoak bultzatuz.

EUSKO ALKARTASUNArentzat, Estatutuaren markoa, duela ia hogeita hamar urte hitzartutako autogobernuaren legezko oinarri formal gisa, gaur ez da nahikoa. Herri honek zituen premia larriei eman beharreko erantzun arduratsua izan zen garai hartan hitzartutako hura (une hartan eman zitekeen bakarra), negoziatu behar izan zenean inboluzio politikoaren arrisku handia zegoelako. Erantzun arduratsua izateaz gain, doktrina-ikuspegi batetik begiratuta gure Herriaren eskubide historikoak bermatu/babestu zituen. Estatutuak bere lehen kapituluan aitortzen duen bezalaxe, Euskal Herriari (komunitate naturala) bere naziotasuna emango liokeen komunitate politikoa osatzeko eskubidea du eta Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak, Nafarroa Garaiak bezalaxe, bertako partaide izateko eskubidea dute. Baina, azkeneko bi hamarkadetan eduki materiala galduz joan da etengabe bere interpretazioan eta ezarpenean izandako erasoak direla medio, espainiar Estatuaren oinarrizko legediaren hedapen amaigabeak ekarri dituen murrizketen bidez.

Hala ere, oinarrizko arazoa ez datza soilik Estatutuaren atal zehatzak ez betetzean, hori oso larria izanda ere; oinarrizko arazoa zera da, Autogobernua martxan jartzea lortu zuen Ituna ez dela bete, balio gutxitu eta erlatibizatu egin dela, eta hori horrela gertatu dela, alde batek, espainiar Estatuak, hitza betetzeko borondate politikorik izan ez duelako.

Eta ezin da ahantzi, Nafarroako Foru Hobekuntzak (herri borondateak inoiz berretsi ez duena) espainiar nabarrismoa politikoki eta sozialki sendotzeko bakarrik balio izan duela, eta Ipar Euskal Herrikoa bezalako egoera ere hor dagoela, bertan planteamendu berri bat egitea ezinbestekoa izanik herri bezala dagokigun legezko aitorpena lortzeko.

EUSKO ALKARTASUNAk Autodeterminazioa eskatzen du eta nazio gisara gure soberaniaren egikaritze osoa aldarrikatzen dugu. Nola ez, nazioa, herritar subiranoz osatua ikusten dugu, subiranoak askatasun zibiletan eta baita eskubide sozial zein ekonomikoetan ere. Horrexegatik, garapen eredu berri baten bidez soilik -produkzio harremanen eredu berria, botere harreman berria, kultura zein bizitza eredu berria-, Euskal Herriko gizon eta emakumeok benetako soberania pertsonal eta kolektiboa gozatzeko aukera izango dugu.

Askotan adierazi izan dugu independentziaren aldeko gure jarrera ez dela "ego" politikoa asetzeko egindako aldarrikapena, baizik eta Estatua sortzeko ezinbestekoa den tresna edota bitartekoa eskuratzeko modua. Horrexegatik gara independentistak. Ongizatearen Estatua bideratzeko nahi dugu independentzia, beti ere, jendarte justuago eta kohesionatuagoa sortzeko asmoz, bizitzaren kalitatea eta aukeren berdintasuna ziurtatzen duten zerbitzuen eskuragarritasuna guztiontzat zabalduz.

EUSKO ALKARTASUNAk, hogeita bost urteko ibilbidean, bere ideologia ekonomikoa sozialdemokrazia izenez ezagutu izan den ikuspegiarekin osatu du. Pentsamolde honek, beste gainerako formulazio teoriko guztiek bezalaxe, aldaketaren, bilakaeraren eta aurrerapenaren legearen arabera moldatzen joan behar izan du.

Ikuspegi ideologiko honetan oinarrituz, perspektiba sozialarekin eta kanpoko mugarik gabe, arlo askotan politika sozialak garatzeko konpromisoa hartzen dugu, hala nola: enpleguan, ongizatean, familiaren segurtasuna alorrean eta zerbitzuen hobekuntzan, beti ere, eredu kooperatiboa eta ekonomia soziala indartuz eta enpresen lehiakortasuna bultzatuz. Guzti hau gure sistema ekonomikoarekin eta finantzieroarekin. Gainera, partidu sozialdemokrata garenez, herri honetako langileen eskubideen defentsa lehentasunezko lan ildotzat dugu eta, bidez batez, erakunde sindikalekiko gure harremana estutzen du, gure herriaren historian ongizatearen handitzearekin  eta lan eskubideen garapenarekin izan duten garrantzia aitortuz.

ALTERNATIBAk bere estrategia hiru apustu nagusiren inguruan zehaztu izan du. Lehenik, ***neurri anitzeko sozialismoa*** delakoaren aldekoa, modu erradikalean egungo dominazio forma anitzak –kapitalismoa, patriarkatua, produktibismoa, demokrazia formala, kolonialismoa eta arrazakeria- gainditzen dituena, borroken berdintasunean eta subjektu burujabeetan oinarrituz, denbora eta garrantzia mailakatzeak alde batera utzita eta beraien arteko lehentasunak alboratuz.

Bigarrenik, ALTERNATIBAk, mundua iraultzeko, ***ezkerraren baitako iraultzaren*** aldeko apustua egiten du. Horrela, ezkerrekoak izateko eta egiteko forma berriak behar direla hartzen du abiapuntutzat, batez ere, gehiengo sozial zabalen artean benetako legitimitatea eskuratu nahi bada behintzat. Helburu horri begira, lan egiteko forma kolektiboari lehentasuna ematen dio ALTERNATIBAk, demokrazia militanteari, proposamen berrien eraikuntzari, berezko agendak garatzeari, indar politiko eta jendarte eragileen arteko uztarketari  eta mugimendu soziopolitiko berrien sorrerari.

Hirugarrenik, egungo errealitate soziala estrukturalki eraldatzeko asmoz, eta beste ezkerrak ezinbesteko aliatutzat hartuz, ***batasuna aniztasunean*** ezinbestekotzat jotzen du, batez ere, agenda bateratuen inguruan guztion lanabesa uztartzeko asmoarekin.

Eta esku artean dugun Akordio hau aipatzen ari garen ereduaren agerpen zehatza da. Izan ere, krisialdi sistemiko larriaren erdian eta eskubide eta askatasun oinarrizkoenen gero eta ukapen larriagoen aurrean, pertsona guztien eta herrien eskubideen defentsan ekintza batasuna bideratzen du ezkerreko erakunde ezberdinen artean.

EZKER ABERTZALEAk Euskal Herriko historiaren azkenaldi honetako garapen soziopolitikoaren hausnarketa egiten du, duela hamarkada batzuk esan

zuena baieztatuz, hau da, nazio askapenerako zein askapen sozialerako borrokak txanpon beraren bi aldeak baino ez direla.

Plano politikoan, azken hiru hamarkada hauetako erreferentzia politiko nagusia Txibertako akordioan kokatzen dugu, hura izan baitzen Euskal Herriarentzako eszenatoki demokratikoa lortzeko lehen saio modernoa. Ondoren, bigarrena, Espainiako Konstituzioaren inguruko erreferendumak argi erakutsi zuen proposatzen zuten marko juridiko politikoak ez zuela Hego Euskal Herriko gehiengoaren aldeko botorik jaso. Eta hirugarrenik, Estatutuen inguruko lanketaren ondorioz azaldu ziren Autonomi Estatutua eta Hobekuntza Legea EZKER ABERTZALEArentzat gure herriaren asimilazioa helburutzat zuten tranpak baino ez ziren izan, beti ere, Euskal Herriaren desagerpena helburutzat zutela argi ikusirik. Horrexegatik, azken hamarkada luze hauetan EZKER ABERTZALEAren lana, nazio aitortzatik abiatuz, gure lurraldetasuna eta Autodeterminazio Eskubidea jasoko lituzkeen estatus demokratikoa eskuratu eta indartzea izan da.

Lapurdi, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, Estatu frantsesak asimilazio politikoaren aldeko apustuari eusten dio, Euskal Herriaren nazio aitortzaren eta Autonomiaren alde emaniko urrats bakoitzari sasi tresna antzuekin erantzunez.

Arlo sozialari dagokionez, euskal langile mugimenduak, kultur mugimenduaren berpizkundeak eta euskararen alde 60 eta 70ko hamarkadetan eman ziren borrokaldiak eta sorturiko mugimendu sozialak ditugu erreferente historikotzat. Eskubide zein aldarrikapen sozial berrien alde sorturiko mugimendu sozialak izan dira horiek guztiak. Erreferentzia historiko hauek asko ugaritu eta aberastu dira azken hiru hamarkadetan eta EZKER ABERTZALEARENTZAt jendartearen eraldaketaren alde garatzen duen lanarekin jarraitzeko funtsezko osagaiak dira herri zein gizarte mugimenduak. Horrexegatik, plano soziopolitikoan EZKER ABERTZALEAk azken hamarkada hauetan garatu dituen lana eta iniziatibak gizarte mugimendu hauek indartzeko asmoz egin ditu, bai euskararen berreskurapen eremuan, bai gizartearen eraldaketa helburutzat duen euskal hezkuntza proiektu nazionalarenean, eta baita langile eta sektore herritarren interesen defentsan ere. Eta, nola ez, EZKER ABERTZALEAk bere praktika politiko guztia lotu du euskal nazioaren etorkizuna eraldaketa sozial handi batez eta gizarte eredu berri batean oinarriturik ekarri lezakeen ezkerreko espazio politiko sozial baten aldeko borrokarekin, bai plano ideologikoan, bai masa borrokan eta baita borroka instituzionalean ere.

Hau guztia dela eta, hiru indar politikook, jasaten ari garen eraso sistemikoa eta blokeo politikoa kontutan izanik, gure ahalegina eta konpromisoa eskaini nahi diogu euskal gizarteari funtsezko eraldaketa politiko eta sozialera eramango gaituzten elkarlanerako bideak garatzeko. Gure ustez, euskal jendartearen zati nagusiak tresna eta dinamika berriak eskatzen ditu, independentismoa eta ezkerreko soberania subjektu politiko gisara berpizteko eta berrindartzeko eta, modu horretan, fase politiko berri honetan zabaltzen ari diren ilusioari eta aukera berriei modu koherentean erantzuteko, beti ere, pertsona ororen eskubide guztiak zein herrienak abiapuntutzat hartuz eta eskuin indarrei aurre eginez esparru guztie-

tan. Azkenik, gaurko dominazio sistemak ezarritako tresnak gaindituko dituzten alternatibak aurkeztu behar ditugu.

Espiritu eta anbiziozko helburu honekin adierazi dugu Akordio hau, hainbat ***printzipio eta konpromisoren*** baitan definitzen dena, eta sinatzen dugun indar politiko guztiak haietara behartzen gaituena.

## 2 AKORDIOAREN ESPARRUA

Euskal Herria, berezko izaera instituzional zein subiranoa dagokion entitate historiko, geografiko, kultural eta politikoa duen errealitate nazionala da. Subjektu nazional gisako erreferentzia horretatik abiatuz, aurkezten dugun Akordioa Hego Euskal Herria osatzen duten lau herrialdeetara mugatzen da.

## 3 AKORDIO POLITIKOAREN PRINTZIPIOAK

Akordioaren baitan, berau ezaugarritzen eta identifikatzen duten printzipio politiko multzoa jasotzen da. Printzipio hauek Akordioa izenpetu dugun hiru indar politikoontzat erreferentziak eta gida modukoak dira geure arteko elkarlana bideratzeko konpromisoak hartzerakoan. Honakoak dira printzipioak:

- **Perfil estrategikoa**.- Finkatu dugun Akordioa gaurko egoerari erantzuten dion proposamen politiko gisara ulertzen dugu, baina epe luzera begira egina dela aitortuz. Ez da inola ere epe laburrari begira eginiko Akordio puntuala, denboran proiektatzen den aldaketa politiko zein sozialerako subjektua eraikitzeko abiapuntu izan nahi du, anitza baina artikulatua, eta beharrezkoak ikusiko diren eraldaketei, ezkerreko zein ikuspegi aurrerazaleetatik, aurre egiteko modukoa. Eta proposamen hau egiten dugu, Euskal Herriarentzat ezinbestekoak diren eskubide pertsonal zein kolektiboak bilduko dituen agenda zuzentzeko gai den indar politiko bakarra, euskal ezker sendoa dela konbentziturik.

- **Elkartzen gaituenari lehentasuna eman**.- Jasaten dugun krisialdi sistemikoak eta eskubide pertsonal zein kolektiboen etengabeko zapuzte larriek, egoerari erantzun eraldatzaileak eta alternatiboak eskaintzeko ezinbestekoa den borondatea eta indarra berpizten dute gu hirurongan. Modu honetan, indar politiko bakoitzak bere identitatea eta helburu politikoei eusten die, baina guztiok elkarlanean arituko gara Akordio honetan azpimarratu ditugun lehentasunen inguruan.

- **Euskal Herriaren burujabetzaren defentsa**.- Eskubide pertsonal eta kolektiboen defentsak normaltasun osoz jaso behar du bere gain eta bere jarduera politikoan, herrien Autodeterminazio eta emantzipaziorako eskubidearen defentsa. Euskal Herriari nazio gisara dagozkion eskubideak, hala nola, bere etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidea, bere hizkuntzaren eta kulturaren normalizazioarena edota bere buruaren erakundetzearena dira Akordio poli-

tiko honen bizkar hezurra.

- **Aldaketa sozialaren zerbitzurako soberania**.- Euskaldunon eskubideak bermatzeko inolako gaitasunik ez duten arlo instituzionalen laguntza eta babesarekin, botere gune nagusiek inposatzen duten eredu ekonomiko eta soziala gainditzeko asmoz, aldaketa estrukturalak bideratu nahi dituztenekin bat egiten du Akordio honek. Indar politiko izenpetzaileontzat ez da benetako eraikuntza nazionalik izango, ez baldin badago une berean eredu sozioekonomikoaren eraldaketa estruktural nagusirik eta ez bada burujabe izango liratekeen euskal instituzioen aldetik benetako sakontze demokratikorik ematen.

- **Ekintza politiko eta sozialerako mugimenduen antolaketan aurrerakada**.- Edozein aldaketa prozesuan ezinbestekoak dira bai erakunde politikoak zein mugimendu sozialak. Ahaleginen artikulatze lanetan aurrera egin behar dugu, beti ere, aniztasuna aitortuz eta bakoitzaren antolaketarako autonomia errespetatuz. Mota honetako mugimendu politiko berrien sorkuntza indartu nahi duen Akordio honek, elkarrekiko konfiantza faltak eta dinamika zein indar desegituratzaileak bideratzen dituzten jokabideak baztertu behar ditu.

- **Burujabetzaren aldeko proposamen guztiak estrategia ezberdinetan txertatzea**.- Akordio honek jasotzen duen eraldaketa politiko zein soziala erdiesteko asmoz -eta berauek babestearren- Euskal Herriko herritarrek zein mugimendu sozialek daramatzaten burujabetzaren aldeko proposamen ezberdinei garrantzia berbera emateko konpromisoa hartzen dugu Akordio hau izenpetzen dugun indar politikook. Proposamen eta borroka horien guztien elkarren arteko elkar eragintzatik, guztien zehar lerrotzetik eta subjektu politiko, sozial edota sindikal ezberdinen artikulaziotik soilik lor daiteke aldaketa orekatu eta sendoa.

- **Bake bideen eta bide politikoen aldeko apustua**.- Akordio hau izenpetzen dugun erakundeok geure helburuak eskuratzeko asmoz soilik bake bideak zein bide politikoak erabiltzeko konpromisoa hartzen dugu, lan hori jarduera instituzionalaren bidez zein desobedientzia zibilaz garatuko dugularik, bortxazko estrategiak eta jarduerak baztertuz.

## 4 EKINTZA POLITIKORAKO KONPROMISOAK

Aipatu oinarri orokor horietan oinarriturik, Akordio honek esku hartze politikorako bederatzi esparru finkatzen ditu, ondorengo urteetan esparru hauetan garatu beharreko lana bateratua izan dadin. Hauek dira lan bateratua garatzeko ekintza politikorako esparruak:

### A.- Euskal Herriaren Autodeterminazioa eta emantzipazioa

Puntu honi dagokionez, honela zehazten da gure esku hartze politikoa:

- **Euskal Herria nazioa da -** Arrazoi historiko, kultural, linguistiko eta politikoengatik gure errealitate nazional ezberdindua aldarrikatzen dugu. Beste herri eta kulturekiko errespetutik abiatuz, ikuspuntu unibertsal bat izanik, Euskal Herriaren izatearen eskubidea babesten dugun giza eskubidea dela aldarrikatzen dugu, nazioarteko komunitatea bere dimentsio guztietan osatuko duena.

  Naziotasuna, oinarrizko eskubidea da. Ikuspuntu horretatik abiatuz, euskal herritar guztiek beren naziotasunaren jabetzatik eratortzen diren ariketa guztiak bideratzeko gaitasuna izan behar dute inolako bazterketa motarik jasan gabe. Naziotasunaren aitortzatik eratorritako eskubideak bermatzeko politika aktiboak bideratuko dira, besteak beste, EHNAren balio juridikoa dakarrena edota euskal kirol selekzioen zein nazio ikurren aitortza dakartenak.

- **Euskal Herriak askatasunez erabaki behar du bere etorkizuna** – Bere historia luzean hainbat eta hainbat gertakari jasan behar izan dituen Euskal Herriak, XXI. mendearen hasiera honetan bere etorkizun politikoa, ekonomikoa, kulturala zein soziala askatasunez erabakitzeko eskubidea egikaritzeko bitartekoak eskuratu eta erabili behar ditu. Askatasunez eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea, edozein herriri dagokion bizitzarako eskubidea da.

- **Guztiontzat izango den Euskal Herria, guztion artean eraiki beharra dago** – Egiten dugun euskal nazioaren aldarrikapena ez da bazterketaren ikuspegitik abiatuz egiten, aitzitik, integrazio eta elkartasuna ditu oinarrian. Euskal nazioa Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun guztion artean eraiki behar dugun esparrutzat jotzen dugu, inor baztertu gabe, guztiontzat izango den esparru politiko, kultural eta instituzional gisara ulertzen dugu euskal nazioa.

- **Euskal Herriak tresna politiko eta ekonomiko guztiak behar ditu** - Nahi dugun eredu juridiko politikoa erabakitzeko eskubidea behar dugu, bitarteko politiko eta ekonomiko guztiak herriaren borondatean oinarrituriko instituzioen zerbitzuan egon daitezen. Soberania politiko eta ekonomiko hori izango da eredu ekonomiko, ekologiko eta sozial berriaren zerbitzuan egongo den tresna, aberastasunaren birbanaketa zuzena bideratzeko eta bazterketa soziala ekiditeko, beti ere, langileriak osatzen duen gehiengo soziala erreferentetzat hartuz eta gizartearen ezkerreko eraldaketa aurrerakoia bideratuz.

## B.- Bake prozesua eta konponbide demokratikoak gatazka politikoari

Gernikako Akordioaren testuak jasotzen duen bezalaxe, bortxakeriarik gabeko egoera bermatzen duen eszenatokia indartzea eta oinarrizko eskubide demokratikoen berrezarpena dira gatazka politikoaren irtenbidea ziurtatzeko benetako bitartekoak. Horixe da Akordio hau izenpetzen dugun indar politikoon lehentasuna eta Akordio horrekiko gure konpromisoa eta babesa birbaieztatzen dugu, gure ekinbidearen lehentasunezko erreferentzia modura onartuz, bake marko bat

eta irtenbide demokratikoak erdiesteko modu gisara.

Zabaltzen ari garen fase politiko esperantzagarri honetan, euskal gizartea da, euskal herritar guztion eskubide pertsonal zein kolektiboen aitortzan oinarritutako bake eta normalizazio prozesurako eszenatokiak aurrera egin dezan, bermatzaile eta subjektu bakarra.

## C.- Demokrazia zuzena, parte hartzailea eta herri boterea

Gehiengo sozial handien kalitatezko esku hartze aktiboan oinarritzen den proposamen politikoa babesten dugu. Gehiengo zabal horrek bere ereduak eta lehentasunak, bai arlo politikoan, ekonomikoan, kulturalean eta sozialean zehazteko eta garatzeko gai denean soilik hitz egin genezake herri soberaniak zuzentzen duen Euskal Herria demokratikoaz. Baieztapen horrek, honako betekizuna dakarkigu Euskal Herrira:

1) Erabaki estrategikoetan demokrazia zuzena indartzea.

2) Parte hartze soziala indartzen duten politikak indartu, demokrazia parte hartzailea areagotuz. Horretarako kontuan izango da emakumezkoek gizonezkoekiko duten egoera ez simetrikoa eta horrela, gauzatuko den benetako berdintasun erreala bermatu.

3) Eredu berri bat landu, ordezkatzen gaituzten pertsonak herritarren gehiengoaren benetako ordezkariak izan daitezen.

4) Parte hartzeari dagozkion berezko instituzioak bultzatzea, hala nola, herri batzarrak eta auzolana.

## D.- Eredu ekonomiko bidezkoa eta ekologikoa

Ekonomia herritarren zerbitzuan jarritako tresna bihurtzen duten alternatiba bideragarriak martxan jartzea da Akordio honen ardatzetako bat. Pertsonen eskubideen aurka kapitalaren hegemonia eta korporazio nagusien interes ekonomiko-finantzieroak mantentzeko sortu dituzten neurri ekonomiko zein sozialen aurkako erantzun irmoak, proposamen argiak eta egingarriak bildu behar ditu bere baitan. Proposamen horiexek aberastasunaren banaketa justura eraman behar gaituzte, hori baita beste ordenu ekonomiko baterako ezinbestekoak diren aldaketa estrukturalei hasiera emateko bidea.

Herritargo osoaren ongizatea nahi dugu eta horrexegatik, hain zuzen, gure lana bazterketa soziala areagotzen eta berdintasuna zapuzten duten egoeren aurkakoa izango da eta, aldiz, bermatu eta babestuak izan behar diren behar sozialen oinarrian dauden eskubideen eta ingurumenaren defentsaren aldekoa.

Argi ikusten dugu, edozein delarik ere, nazio eraikuntzarako prozesuak ezin di-

tuela gerorako utzi Euskal Herriak gaur pairatzen duen eredu sozioekonomikoaren eraldaketa estrukturalak. Horrexegatik, euskal markoa bilduko duen proposamena egiten dugu, bide horretan gehiengoaren eskubideak eta beharra ase ditzan. Zera proposatzen dugu:

- **Sektore estrategikoen kontrol publikoa zein soziala indartzea**. Bide horretan, sistema finantzario publiko baten sorreraren aldekoak gara, Euskal Kutxa Publikoa, eta ekonomian traktore diren sektoreetan partehartze publikoa handitzearen aldekoak, Euskal Esparru Sozioekonomikoari bideragarritasuna emanez.

- **Politika fiskala eta soziala**. Aberastasunaren banaketa sarreren (fiskalitatea) eta gastuen (politika soziala) oreka bideratzen dituen politika aurrerakoian oinarritzen da. Modu horretan, fiskalitate mailakatua aldarrikatzen dugu, iruzur fiskalaren aurkako benetako borroka eraginkorra, era berean, kalitatezko zaintze zerbitzu publikoak, osasuna, hezkuntza eta etxebizitza zerbitzuen unibertsaltasuna bermatzen duen gastu soziala.

- **Osasun sistema**.- Populazio osoarentzako kalitatezko osasun zerbitzu unibertsal eta doakoaren aldeko apustua egiten dugu. Etekin edota emaitza ekonomikoen gainetik giza harremanen duintasuna jarriko duen osasun sistema nahi dugu.

- **Zaintze zerbitzu publikoak**.- Egun ematen ari den pribatizazioaren aldeko dinamiken ordez, kalitatezko zaintze zerbitzu publikoak indartzearen aldekoak gara, pribatizazioak erosteko ahalmen handia duten gizarte sektoreen esku soilik uzten baititu aipatu zerbitzuak.

- **Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eta babes soziala**.- Enplegu politika eta babes soziala soberanoak bermatzeko ezinbestekoak diren eskumen juridikoak euskal instituzioen zein eragile ekonomiko eta sozialen esku jarriko dituen LHEE aldarrikatzen dugu. Honek guztiak, besteak beste, sistema publikoko pentsioak bermatzeko aukera emango digu.

- **Lan eskubideen babesa**.- Lanik izan ala ez, langileen eskubideen aldeko apustu argia egiten dugu eta, horrexegatik, lanaren banaketaren aldekoak gara. Bide beretik, lanaren behin-behinekotasunaren aurkakoak gara, erretiratze urteen aurreratzearen aldekoak eta Lanbidearteko Gutxieneko Soldata handitzea aldarrikatzen dugu. Bide beretik, familiaren bizitza aktiboa, pertsonal mailakoa zein soziala garatzeko aukera ematen duten neurri eraginkorrak bultzatzearen aldekoak.

- **Elikagai soberania lagundu**.- Elikagai soberania indartzeko politika aktiboak bultzatzea da gure nahia, egun indarrean dagoen nekazal industria ordezkatuz: ekologian oinarrituriko ustiaketa babestu, baserritarren ekonomia indartu, erosle eta saltzaileen arteko harreman zuzena bermatzen duten tokiko zein eskualde-

ko merkatuak zein zerbitzuak eta zirkuituak areagotu. Ondasun naturalean kudeaketa planifikatua, kolektiboa eta soziala bideratu, hala nola, urarena, lurrena, haziena… eta transgenikoen erabileraren aurkakoa.

- **Ekonomia ekologizatu**.- Energiaren aurrezteari eta iturri ekologiko berriztagarrien erabilerari lehentasuna eman, beti ere, energiaren sistema publikoan oinarrituz. Zentral termikoak zein nuklearrak desegin eta ziklo konbinatuko zentralen eraikuntzarekin amaitu. Eredu energetiko berri baterantz abiatzeko bide bakarra ez da energia iturri berriztagarriak indartzea, baizik eta batez ere, kontsumo mailak gutxitzea eta, nola ez, sektore energetikoa etekin pribatuetatik urrundu. Errepide nagusi berrien eraikuntzaren aurkakoak gara eta garraio publikoaren garapenaren alde jotzea proposatzen dugu, errepide nagusien eta eskualdekoen arteko osagarritasuna indartuz. Merkantzia eta bidaiarien garraiorako trenbidea indartzearen aldekoak gara. Bi hitzetan esanda, garraio mota ezberdinen arteko uztartzearen eta mota ezberdinetako garraioaren osagarritasunaren aldekoak.

- **Ekonomia soziala eta solidarioa babestu**.- Esku-hartze aktiboa, elkartasuna, egokitasuna, inklusioa eta feminismoa bultzatzen duen eredu ekonomikoa indartu nahi dugu, beti ere soilik pertsona guztien eskubideak bermatzeko helburuarekin soilik.

## E.- Euskalduntzea

Euskara euskal herritargoaren nazio hizkuntza da eta, beraz, bere identitatearen ezaugarri nagusienetariko bat. Euskara gure herriko kulturaren funtsezko osagarria da eta kultura unibertsalari euskaldunok egiten diogun ekarpena, kohesiorako eta integraziorako tresna izateaz gain. Hori guztia dela eta, ezinbestekotzat jotzen dugu Euskal Herri osoan euskararen normalizazioa eskuratzeko estrategia zehaztea eta adostea, beti ere, XXI. mendeko euskal gizartearen izaera kultur anitza errespetatuko duen herritar eleanitzez osaturiko Euskal Herria sortzeko helburuarekin.

Normalizazio prozesuak, azken hamarkadetan hezkuntza sistematik egin den funtsezko ekarpenaz gain, jendarteko esparru ezberdinetan euskararen ezagutza eta erabilera bermatuko dituen beste neurriak behar ditu, beti ere, berezkoa dugun euskal kultur ereduaren aldeko dinamikan uztarturik. Era berean, euskarak etorkinak diren pertsonen integraziorako tresna izan behar duela pentsatzen dugu.

Bide horretan, ezinbestekotzat jotzen dugu Euskal Herria osatzen duten zazpi herrialdeetan euskararen ofizialtasuna eskuratzea, gaztelera, euskararekin batera, koofiziala izango litzatekeelarik Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan eta, frantsesera, euskararekin batera koofiziala Ipar Euskal Herriko beste hiru herrialdeetan.

## F.- Feminismoa

Patriarkatuaren aurkako borroka, Akordio hau izenpetzen dugun indar politikoon funtsezko elementua da, berez, zapalkuntza sistema zaharrenetarikoa izateaz gain, munduko biztanleriaren erdiari bere buruaren jabe izateko aukera ukatzen baitio, menpeko egoerara kondenatuz. Sistema patriarkalak indarrean dirau gure jendartean eta beste zapalketarako sistemekin uztartuz, dominazio sistema indartu baino ez du egiten. Horrexegatik pentsatzen dugu beren garapen osoa bermatzeko bitartekoak bermatuz soilik, eta patriarkatua gaindituz, aurrera egin dezakegula benetako jendarte justu, egoki eta demokratikoranzko bidean.

Zentzu horretan, honako konpromisoa hartzen dugu:

- **Gizartea eraldatzeko ezinbestekoak diren erantzun politiko zehatz eta eredu sozialak eskaintzen dituen feminismoarekin bat egiten dugu.**

- **Emakumeen bortxakeriaren aurkako borroka**.- Indarkeria matxistak emakumezkoak hiltzen ditu emakumezkoak izateagatik soilik. Baina indarkeria mota hau, izeberg handiago baten gain-tontorra baino ez da. Emakumearen aurkako indarkeriak mila aurpegi ditu. Emakume orok jasaten du indarkeria motaren bat bere bizitzan zehar: indarkeria ekonomikoa, sexuala, psikologikoa, soziokulturala… Errealitate hori salatu nahi dugu eta Estatuari zein gizarte osoari emakumeen aurkako edonolako indarkeria motaren desagerpena eskatzen diogu.

- **Emakumeen kalitatezko esku hartze aktiboa**.- Egun indarrean dauden sistemak, emakumeei erabakiak hartzeko guneetan parte ez hartzeko dimentsio patriarkala duten demokrazia ereduetan oinarritzen dira eta, horrexegatik, ez ditu onartzen interbentzio sozialean eta negoziazio politikoan partaide diren subjektu modura. Hau guztia kontuan izanik, ezinbestekoa da emakumeak baztertzen dituen boterearen kontzepzioa eta herritargoarena eraldatuko dituen proiektu politikoa artikulatzea. Parekidetasunari begira neurriak hartzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa gaur arte gizonek okupatu izan dituzten espazioetan emakumeen benetako parte hartzea bermatzeko.

- **Hezkuntza berdintasunean**.- Gure jendartea emakumeek zein gizonek izan behar dituzten betebehar ezberdinak, klixeak eta aurreiritziak haustea helburutzat duen hezkuntza parekidearen garapena premia gorria duen betebeharra da.

- **Zaintzen defentsa**.- Zaintze zerbitzuak, ekonomiaren bihotzean daudenak direla kontsideratzen dugu eta horrexegatik hauek babestearen aldekoak gara. Bide beretik, ***Atzerritarren Legearen aldaketa***ren aldeko apustua egiten dugu, besteak beste, zaintze lanak bultzatzen dituelako, baina nagusiki berauek emakumeen eskutan utziz eta oso baldintza ekonomiko kaxkarretan. Modu horretan emakumeen artean eskubideen mailakatzea indartzen du, batzuen alde

eta besteen aurka. Ildo beretik, ***emakumeen etxeko enplegua arautzen duen normatiba baztertzailearen erreformaren aldekoak gara***, etxeko langileen benetako izaera aitortuz, paperik gabeko etorkin emakumeena barne, berauek ere soldata duina merezi dutelakoan baikaude, atseden eskubidea dagokielakoan eta baita segurtasun sozialaren babesa ere, beste edozein sektoreko langileek duten modu berberean.

- **Estatu laikoaren defentsa**.- Estatu laikoak oinarri nagusi gisara giza eskubideen babesa dauka, eta, beraz, emakumeei dagokien askatasunerako eskubidea, oinarrizko giza eskubide gisara. Alde horretatik, instituzio publikoen eta erlijio ezberdinen arteko bereizketa osoa aldarrikatzen dugu eta ez dugu inolako fedearen esku hartzerik onartzen emakumezkoei dagokien eskubideen esparruan zein hauen erabakitzeko eskubidean.

## G.- Hezkuntza

Euskal herritargoak kalitatezko hezkuntza eta formakuntza etengabea jasotzeko eskubidea du, beti ere, bere nahi eta gaitasunen arabera. Horretarako, ezinbestekoa da euskal curriculumean oinarrituriko berezko hezkuntza sistema osatzea. Eredu publikoa, herritarra, parekidea eta parte hartzailea, bere baitan 0 urtetik 18 urtera bitarteko hezkuntza prozesua jasoz, hezkuntza profesionala eta unibertsitate sistema barne dituelarik. Hezkuntza publikoaren aldeko apustua egiterakoan, botere publikoek euskal gizarte osoari dagozkion hezkuntza eskubideak ezinbestean bermatu behar dizkiola pentsatzen dugu. Hau da, euskal hezkuntza publikoa ikuspuntua herritar izaerarekin lotzen dugu, besteak beste, komunitateari atxikita, hezkuntzan ere demokrazia parte hartzailea garatu nahi baitugu. Gauzak horrela, euskal sistema publikoa, diseinuan, antolaketan, planifikazioan, kudeaketan eta garapenean, botere publikoaren eta hezkuntza komunitatearen arteko elkarlanaz garatu behar dela pentsatzen dugu.

## H.- Gazteria

Gazteak Euskal Herriko oraina eta etorkizuna izanik, aldaketa politiko eta sozialaren motorra izan behar dute. Beraz, akordio hau sinatzen dugun erakundeek esparru desberdinetan euskal gazteriak bizi duen salbuespen egoera aldatzeko neurriak hartu eta sustatuko ditugu.

***Urratuak eta ukatuak izan diren eskubide zibil eta politiko***en aurrean, euskal gazteria gizarteko talde zigortuena izan da, beraz ezinbestekotzat eta atzeraezina deritzogu hauen oinarrizko eskubideen itzultzea:

- Berezko nortasuna duen subjektu politiko bezala bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea, kriminalizaziorik ezta jazarpenik sufritu gabe.
- Baldintza berdinetan antolatzeko eskubidea, antolakuntza eredua aukeratzeko askatasun osoa.
- Gazteriaren ahotsa eta hitza errespetatu aldaketa politikorako eta sozialerako hartzen diren akordio guztietan.

Gazteen hitza eta erabakiak esparru desberdinetako eguneroko ekintza politikoan errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu, ***taldean eragina duten esparru desberdinetan gazte politiken ezarketa egokia bermatuz***. Era berean, gazteriak bizi duen ezegonkortasun estrukturalari aukera errealak proposatzeko ahalmena eta beharra du, emakume gazteen kasuan ezegonkortasun hau larria dela aintzat hartuz.

***Ahal diren kasu gehienetan***, emantzipazio eta etxebizitza duin bat eskuratzeko ezintasunari, lan baldintzen urritze totalari, hezkuntza publikoko koste altua edota honen pribatizazioari, ikasketak euskara hutsean osatzeko ezintasunari zein euskal kurrikulumaren ezinezko aplikazioaren aurrean, lehentasuna duten arazoak izanik besteak beste, ***taldean adostutako erantzunak eman behar ditugu.***

Maila berean, ***aisiaren eta kultur politiken*** merkantilizazioaren aurrean, parte hartzaileak eta herrikoiak diren jarduerak bultzatzea beharrezkoa da, kontsumorako soilik zuzenduta dauden eskaintzak gaindituz.

Hurrenez hurren, ***auto-kudeaketa*** bere esparru eta adierazpen guztietan defenditzen dugu, euskal gazteriak aukeratutako berezko antolaketa eredua delarik. Era berean, ***leku libreak*** sustatzeko eta defenditzeko konpromisoa hartzen dugu, gazteriak garatzeko eta bere jarduera era guztiz autonomoan eramateko, gazteen arteko harremanak sustatzeaz gain, kontzientzia kritikoan, jarrera erreboltari eta balore eraldatzaileetan oinarritutako bizipenen elkartrukatzea, aberastasun kulturala, sorkuntza eta heziketa indartuko dituztenak.

## G.- Internazionalismoa

Aitortzen dugu Euskal Herriaren etorkizuna munduko sektore herritarren etorkizunarekin lotuta dagoela eta, horrexegatik, internazionalistatzat jotzen dugu geure burua. Horrek esan nahi du, nazioarte mailako elkartasun ekimen eragin-korrak garatzeko konpromisoa hartzen dugula, ez puntualki egiten diren ekintzatan soilik parte hartuz eta, beraz, mundu mailako esparru alternatiboak sortzeko eta artikulatzeko  lan egingo dugula, Europatik hasiz eta gainerako nazioarteko eremuetara zabalduz.

Aldaketa sistemiko bat eragiteko borrokaren dimentsio ezberdinak bereiztea ezinezkoa den bezalaxe, ezinbestekoa da mugimendu, erakunde eta herri ezberdinen arteko ekimenen arteko uztarketa egitea, baldin eta finkaturiko helburuak eskuratu nahi baditugu behintzat. Gauzak horrela, ezinezkoa da maila lokala, nazionala eta globala bereiztea eta, horrexegatik, hain zuzen, guztiak lan agenda politiko bakarrean uztartu behar dira.

Egunero ikusten ari gara nazioarte esparruan hartzen ari diren gero eta erabaki gehiagok nola eragiten diguten geure eguneroko bizitzan eta, horregatik, hain zuzen, ezinbestekoa da erantzun globalak artikulatzea logika antidemokratikoak

zuzentzen dituen erabaki horien aurrean. Modu horretan, estrategikoak bihurtzen dira lanabes horri eskainitako indarrak, bai Europaren esparruan bai Hegoaldean txiroturik izan diren herriekiko aliantzetan ere.

Pertsona eta herri guztien etorkizuna egungo garapen ereduaren aurrean alternatiba bideragarria sortzeko gaitasunaren baitan dago. Horrek bihurtzen ditu internazionalismoa eta elkartasuna ezinbesteko Euskal Herrian sortu nahi dugun eraldaketan.

Hori guztia kontuan izanik, ondorengo konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Modu estrategikoan Europako mugimendu politikoekin ditugun harremanak indartzea.

- Sare globaletan dugun esku hartzea eta aliantzak indartzea.

- Elkartasun internazionalista sendotzea.

- Elkartasuna bereziki indartzea estaturik gabeko nazioekin.

## 5.- Akordioaren jarraipena

Akordio hau izenpetzen dugun erakundeok bertan azaltzen diren edukiak babesteko, bultzatzeko eta garatzeko konpromisoa hartzen dugu –lehentasun politiko alboraezina izango duen konpromisoa da-, nahiz eta gure arteko autonomia organizatiboa, estrukturala eta identitatarioa mantendu. Horrexegatik, ***Akordioaren jarraipenerako egitura iraunkorra*** sortuko dugu eta lehentasuna emango diegu elkarlanean, edukietan eta formatan, adostu eta garatzeko aukera ematen duten ekimen guztiei.

Euskal Herrian, 2011ko urtarrilak 16

| Alternatiba | Eusko Alkartasuna | Ezker Abertzalea |
| --- | --- | --- |

| Alternatiba | Eusko Alkartasuna | Ezker Abertzalea |
| --- | --- | --- |

euskal herria ezkerretik

# ACUERDO

## POR EL CAMBIO POLÍTICO Y SOCIAL ENTRE INDEPENDENTISTAS Y SOBERANISTAS DE IZQUIERDA

# ACUERDO
## POR EL CAMBIO POLÍTICO Y SOCIAL ENTRE INDEPENDENTISTAS Y SOBERANISTAS DE IZQUIERDA

Un compromiso desde una izquierda fuerte
en pos de una agenda política de defensa
y ejercicio del conjunto de los derechos
individuales y colectivos

El Acuerdo que presentamos la IZQUIERDA ABERTZALE, EUSKO ALKARTASUNA y ALTERNATIBA quiere responder de manera positiva a la nueva fase que se está progresivamente abriendo en Euskal Herria. El nuevo escenario político requiere un ejercicio de responsabilidad por parte de todos y todas, por ello, las fuerzas firmantes de este Acuerdo pretendemos aunar esfuerzos para abordar la construcción nacional y la transformación social, avanzando decididamente, y siempre por vías exclusivamente políticas en la consecución de una Euskal Herria soberana y solidaria.

